BIZITEGI ERAIKINA — RAMON MARIA LILI 7

D MAILA





Egilea eta data: Francisco Urcola; 1920

Deskribapena

Mehelin arteko eraikina, jatorriz erdisotoa, bastardea eta bost goi oin dituena (bosgarrena zertxobait atzeraemana proiektuan, baina gaur egun fatxada planoan dago), gehi bi jasodura mantsarda handi moduan. Harlanduzko fatxada, 1. oinetik 5. oinera bitartean alboetako ertzetan hormigoizko begiratokiak dituena.

Babes erregimena

1.- Erregimen orokorra.
Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.
Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.

2.- Berariazko erregimena.
A. Babesetik kanpo utzitako elementuak edo zatiak: jasodura mantsardatuak (6. eta 7. goi oinak).
B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak.
C.- Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk: ez, erregimen orokor hori arautzeko baldintzak betetzeari lotutakoak izan ezik, hala badagokio.